

## IDonostiako udalerrian berotegi-efektua eragiten duten gasen (BEG) inbentarioa aztertzeko txostena, 2017. urteari dagokiona.


### 2017. urteko isuriak

2017an, BEG isuriak 857.006 tona CO2 baliokide izan ziren gure udalerrian; hau da, 4,6 tona CO2 baliokide biztanleko.

<b>Isuriak, guztira:</b>	<b>857.006 t CO2e</b>
<b>Isuriak biztanleko:</b>	<b>4,6 t CO2e / biztnl</b>

### Sektorearen arabera

Isuriaren erdia baino gehiago garraioari dagokio (% 56,5); atzetik, baina urruti, zerbitzuen sektorea dator (% 19) eta etxebizitzena (% 16,6). Udalerriko hondakinen kudeaketak isuri guztien % 7,3 sortzen du; lehen sektorea ez da % 1era iristen.




### 2016. urtearekiko bilakaera

2016ko isuriaren aldean, 2017an isuriak, oro har, % 5,8 igo dira, eta biztanleko, % 5,6.

	2016	2017
<b>Isuriak, guztira (t CO2e):</b>	<b>810.228</b>	<b>857.006</b>
<b>Isuriak biztanleko (t CO2e / bizt):</b>	<b>4,4</b>	<b>4,6</b>



Hona hemen sektorearen arabera bilakaera:



	2016 (t CO2e)	2017 (t CO2e)	gehikuntza
<b>Garraioa</b>	<b>481.030</b>	<b>484.326</b>	<b>+ 0,7 %</b>
<b>Zerbitzuak</b>	<b>139.285</b>	<b>163.2019</b>	<b>+ 17 %</b>
<b>Etxebizitzak</b>	<b>123.586</b>	<b>141.930</b>	<b>+ 15 %</b>
<b>Hondakinak</b>	<b>61.544</b>	<b>62.506</b>	<b>+ 1,6 %</b>
<b>Abeltzaintza</b>	<b>3.112</b>	<b>3.295</b>	<b>+ 5,9 %</b>
<b>Nekazaritza</b>	<b>1.672</b>	<b>1.731</b>	<b>+ 3,5 %</b>

### Garraioa

Sektore honetako isuriak udalerriko isuri guztien % 56,5 dira. Garraioari egotz dakizkiokeen isurietatik, % 63 autoek eragindakoak dira; % 28, kamioi eta furgonetenen eragindakoak, eta % 6,7 autobusek.

2017an, isuriak % 0,6 igo dira 2016koen aldean. Igoera txiki hori, batez ere, autoek eragindako isurien igoerak ekarri du.

### Zerbitzuak

Hirian pisu handia duen sektore honek isuri guztien % 19 sortzen du. Isuri horien bi heren baino gehixeago elektrizitatearen kontsumoari lotuta daude, eta gainerako herena gas naturalaren eta gasolioaren kontsumoak eragiten du.

2017an, sektore honetako isuriak % 15 igo dira, elektrizitatearen kontsumoari lotutako isuriak eta gas naturalaren eta gasolioaren kontsumoari lotutakoak igo direlako. Hala ere, nabarmendu behar da zerbitzuen sektorean gas naturalaren eta gasolioaren kontsumoa handitu den arren, elektrizitatearen kontsumoa murriztu dela.

Zerbitzuen eta etxebizitzaren sektoreetan elektrizitatearen kontsumoari lotutako isuriak igo dira –nahiz eta biotan kontsumoa murriztu den–, 2017an elektrizitatearen isuri-faktorea askoz handiagoa izan delako (0,31 kg



CO<sub>2</sub>/Kwh 2017an, eta 0,25 kg CO<sub>2</sub>/Kwh, 2016an). Isuri-faktorea erregai fosiletatik sortzen den elektrizitatearen portzentajearen arabera da, iturri berriztagarrietatik edo zentral nuklearretatik sortutako elektrizitatearen portzentajearen aldean.

### Etxebizitzak

Etxebizitzen sektoreak isuri guztien % 16,6 sortzen du; erdia, gutxi gorabehera, elektrizitatearen kontsumoari dagokio, eta beste erdia, erregaien kontsumoari (gas naturala eta gasolioa).

Sektore honek 2017an izan duen portaera zerbitzuen sektorearen portaeraren oso antzekoa izan da. Guztira, isuriak % 15 handitu dira 2016koen aldean, erregai eta gasolio gehiago kontsumitu direlako, eta, baita ere, elektrizitatearen isuri-faktorea handitu delako (nahiz eta elektrizitatearen kontsumoa murriztu den).

### Hondakinak

Hirian sortutako hondakinen kudeaketak isuri guztien % 7 sortzen du, eta % 1,6 igo da 2017an. Igoera horren arrazoia da masan bildutako hondakinak gehiago izan direla eta gaika bildutakoak, berriz, gutxiago.

### Lehen sektorea

Lehen sektoreak pisu txikia du hirian eta, hortaz, BEG isuri gutxi sortzen ditu: isuri guztien % 1 baino gutxiago. 2017an, baina, sektore honetako iuuriak % 3,5 igo dira.

### Isurien bilakaera, hiriak duen helburuarekin alderatuta

2007tik 2016ra bilakaera ona izan den arren, 2017an isuriek izan duten igoera dela eta, 2020rako helburua lortzeko (% 20ko murrizketa) bete behar ditugun balioen gaintik gaude, pixka bat baino ez bada ere.

